

EUSKARAZKO ERLATIBO EZ OHARÑO BAT

Beñat OYHARÇABAL

Euskarazko erlatiboez estudio guti egin izan zen, harik eta duela dotzena bat urte de Rijk hizkuntzalaria arazoari funtski lotzen hasi zen arte.¹ Hari esker urrats handiak egin ditu puntu horretan euskal gramatikak, nahiz holandes ikertzailearen emaitzak, zenbait alorretan, eztabaidagarri ere gertatzen diren. Idazlantto honetan, hain zuzen, euskarazko erlatibogintzan agertzen diren ezintasun edo oztopo batzu aztertu nahi nituzke, haieri buruz de Rijk-ek atera dituen ondorioak doi bat zuzentzekoak iruditzen baitzaizkit.

ZERI DERITZAGUN PERPAUS ERLATIBOA

Honela mugatu ohi dira perpaus erlatiboak: perpaus erlatiboa izen sintagma bat modifikatzen duen perpausa da, halako moldez sortua non perpaus horren azpi-egiturak, izen sintagma modifikatuarekin erreferentzia-kide den izen sintagma bat baitauka.²

Ikus dezagun adibide bat, bidenabar erabiliko dugun hiztegia finkatuz:

- (1) Piarres ausiki duen zakurra joan da
perpaus erlatiboa / izen sintagma
xertatua

(1) gure adibidea, ondoko bi perpaus hauen elkartzeak sortarazia dela erranen dugu:

- (1') *Zakurrak Piarres ausiki du.* xertoa deritzakegu hemen.

1. Salbuespenetan Etxaidearen *Tratado de Sintaxis del Idioma Euskaro* (1912) aipatu behar litzateke.

2. Mugaketa hau zenbait ilunegi gerta dakion beldur bainaiz, demadan de Rijk-ena, frantsesera itzulirik: «Une phrase relative est une phrase modifiant un syntagme nominal de telle sorte que la structure profonde de la phrase contient un syntagme nominal identique au syntagme nominal qu'elle modifie. Le concept d'identité linguistique qui est requis ici, ne consiste pas en la simple identité formelle, mais comprend en outre l'identité référentielle.» (Tesis, 6. orr.)

(1'') *Zakurra joan da.* xertagaia edo matriza deituko dugu.

(1') eta (1'') horietan, *zakurra* izen sintagma erreferentzia bera du. Lehena —(1')ekoa— izen sintagma erlatiboa (ISerl.) deituko dugu, eta bigarrena —(1'')ekoa—, izen sintagma xertatua (ISxert.)³

Ikus daitekeenaz, xertakuntzak bi aldaketa ekartzen dio xertoari perpaus erlatibo bilakarazten duelarik:

— ISxert.—rekin erreferentziakide den izen sintagma, ISerl. hots, eza-batu egiten da;

— pertson adizkerari *-(e)n* marka eransten zaio.⁴ Adizkera hori perpaus erlatiboaren hondarrean agertzen da beti («erlatibo libro» deituetan salbu). Bestalde, perpaus erlatiboa gutiz gehienetan ISxert.—ren ezkerrean izanen da, nahiz, batzutan, ekialdeko euskalkietan bereziki, eta idazle zaharren obretan, eskuinean ere ager daitekeen, izen taldearen eta determinatzailearen artean.

Horiek hola, orain artinokoak ikusiz, gauza bati ohart gakisikioke: ISerl. ezabatzen delarik, xertoan dakarkeen deklinatizikia ere ezabatzen da. Gisa horretan, zenbait aldiz gerta daitekeen aditzarekilako komunztadura bazterre utzirik, azalean deusek ere ez du gehiago erakustera ematen zein izan litekeen ISerl.—ren eginkizuna xertoan, eta beraz perpaus erlatiboan.

Buruhausteak hortik heldu zaizkigu: edozein izen sintagma, edozein kasutan, erlatiba daitekea? Hizkuntzak ez ote du zenbait muga jartzen ISerl.—ren eginkizunaren arabera? Hitz batez, deklinatiziki guziek erlatibakuntza onartzen dutea?

DE RIJK-EN ERANTZUNA.

Pundu hori ongi azterdu ondoan, hona de Rijk-ek gure galdeari egiten dion erantzuna (giputzen artean ari izana da batik bat).

Bi hizkera moeta berezten ditu:

— hizkera hertsia, zeinentzat ISerl.—k obligatzuki kasu gramatikal batetan egon behar baitu;

— hizkera zabala, hartan erlatibakuntza beti posible izanen baita,

3. Deitura horiek hobetsi ditut, tokiaren arabera eman ohi direnak makurbide gerta daitezkeelakoan euskararen kasuan. Ezkerreko xertakuntza, hedatuena bada ere, ez baita bakarra.

4. De Rijk-ek morfonologiako arrazoi batzuzengatik, erlatibagailua eta *-n* inesiboa parekatzen ditu. Haren arabera, oker daude 1. genitiboa eta erlatibagailua berdindu nahi dituztenak. Morfonologiak hala erakustera ematen badu, hor dago erlatiboek eta sintagma genitiboek izen sintagma eraikiduretan erakusten duten jokabide paraleloa; orenen buru biek ahaidetasun zerbait baduketelako hipotesisa ez baita hain bazterterraza.

ISerl.—k atzizki bakun bat dakarkeen guztietan. Azken hizkera honetako hona de Rijk-ek eman duen zerrenda:

1. atzizki erlatiba daitezkeenak.
 - absol., ergat., datiboa (kasu gramatikalak beraz, horiek baizik ez baitaitezke erlatiba hizkera hertsiki delako hartan);
 - inesiboa, adlatiboa, elatiboa, (bizigabeekin), eta bitartekoa. Atzizki bakun guztiak beraz, genitiboa salbu, hura aipatzeke uzten baitu de Rijk-ek.
2. atzizki ezin erlatiba daitezkeenak.
 - adlatibotik sorturikoak: *-raino*, *-rantz*;
 - 1. genitibotik sorturikoak: soziatiboa, benefaktiboa, kausatiboa, eta, bizidunekin, kasu lokatibo guztiak.

Aipatu bi hizkera moeta horietan, ezintasunak bi gisaz altxa daitezke:

— ISxert. eta ISerl. ber kasuan direlarik, edozein ere izanik;

— ISxert.—k ISerl.—ren kasuarekin semantikazko ahaidetasunik baldin badu («semantically related» dio de Rijk-ek).

Horiek oro ulergarriago izan daitezen adibide batzu eman ditzagun.

Bi hizkeretan onartuak:

ISerl. ergat. (2) *Piarres jo duen haurrari gertatu zai.*

ISerl. absol. (3) *Piarresek jo duen haurrari gertatu zai.*

ISerl. datib. (4) *Piarresek hitz egin dion haurrak egin du.*

Hizkera zabalean baizik ez onartuak:

ISerl. ines. (5) *Orain bizi naizen herriak izen bitxia du.*

ISerl. elat. (6) *Ateratzen naizen etxeari su emanen diot.*

ISerl. adlat. (7) *Joaten naizen etxeari su eman diote.*

ISerl. bitart. (8) *Goizean mintzatu garen gaiak inportantzia handia du.*

Hizkera bietan ezin onartuzkoak (de Rijk-en arabera beti):⁵

ISerl. soziat. (9) *Aurten bizi naizen lagunak auto berria eskaini dit.*

ISerl. benef. (10) *Amak barda otoitz egin zuen haur eria goizean hil da.*

ISerl. kausat. (11) *laz ene burua hiltzer nuen emaztekoa Parisen bizi da.*

ISerl. biziduna, inesib. (12) *Konfiantza osoa ezarri duzun gizon horrek engainatzen zaitu.*

ISerl. biziduna, elat. (13) *Non dira orain, berri horiek bildu dituzun jendeak?*

ISerl. biziduna, adlat. (14) *Maiz kontseilu eske joaten zaren apezak erran dit.*

Ezintasun horiek altxa ditzaketan bi salbuespenak:

ISerl. eta ISxert. kasu berean (15) *Parisen izan zinen lagunarekin joanen naiz Italiara.*

5. Zehazki mintzatzeko agramatikaltzat dauzka de Rijk-ek (9-14) adibideak. Bestalde, *-rantz*, eta *-raino* ez ditut zerrenda horretan sartarazi, adlatibo soilarenean sartzen baita haien distribuzioa, edo inesiboarenean. Manera horretan, deus garbi ateratzea oso zaila da. Adibidez, *bideratzen geran mendiak emendik eun kilometro daude* behar ote litzateke onartu ISerl. adlatibo soilan interpretatuz, eta ez terminatiboan edo zuzenbidezkoan? De Rijk-ek hala egiten du; eni franko artifiziala iruditzen zait; (Tesis, 109, orr.).

ISxert. eta ISerl.—ren kasua semantikoki lotuak (16) *Iaz ene burua hiltzer nuen arrazoiaz ez naiz oroitzen.*

(16) de Rijk-ek eman adibide batetarik hartua da. Harentzat (11) agramatikala baldin bada, (16) ez da hala, azken honetan *arrazoi* semantikoki ahaidetasunean delakotz ISerl.—ren kasuarekin, erran nahi baita kausatiboa-ekin.

DE RIJK-EN EMAITZEN KRITIKA

Honaino de Rijk-en lanen ondorioak aurkeztu baitituz, orain haien kritikatzan hasiko naiz. Bi pundutan hauzitan jarri nituzke hemen de Rijk-en emaitzak, ene irudiko,

1. hizkera hertsirik (hark mugatu bezalakorik) ez baita;
2. hizkera zabalari dagokionaz, haren erregelak ber denboran zabalegi eta hertsiegi baitira.

Gainera dezagun oraino puntuño bat. De Rijk-ek aipatu gabe uzten baitu genitiboen kasua, isiltasun hori nola interpreta ez dakigu zuzen. Bouille-k lan batetan egin duen bezala pentsatu behar ote da erlatibagintza blokatua dela holakoetan?

Ene ikusmoldea eman aitzin, derradan ipar aldeko euskaldunen artean (euskalkiz baxe-nafartarrak gehienak, baina lapurtarrak eta zuberotarrak ere baziren) egin ditudala neure inkestak, eta ez giputzen artean. Hala ere, ez zait iruditzen, funtsezko hauzia euskalkien desberdintasunean datzala (horrek ez baitu erran nahi deus ikustekorik ez dutela).

1. De Rijk-ek mugatu bezalako hizkera hertsirik ez da. Ez dut uste adibidez euskaldunik inon baden, hiztegi moldakuntza eginik, (17) gaitzets lezakeenik.

(17) *Sortu nintzen egunetik hona zenbat ez-behar eta makur!*

Argi eta garbi da hizkera hertsi hori egiazkoa balitz, euskaldun zenbaiti toki-denborazko perpaus anitz ezinezko gerta lekizkiokela. Molde horretako itzuliak, erlatibakuntzari esker sortuak, euskalki guztietan aurkitzen dira. Bistan dena, holako jokadibeak toki-denborazkoen beste perpausetan ere atzeman daitezke; zenbaitetan hitzunak haien aitzinean dudatan bezala egoten badira, geroago aipatzen ditugun arrazoinengatik gertatzen baita, eta ez de Rijk-ek erran bezalako ezintasun absoluto, zehazki mugatu batengatik. L. Michelenak galdatzen duelarik: «Es correcto *noan etxera, natorren mendia, nabilen mendia*, etc.?»», gaizki gindabilzake, Michelena hizkera batekoa edo bestekoa den finkatu nahi bagenu. Hark eman adibideak, hola ezarririk, solas ingurumen batetarik kanpo, euskaldun guzientzat dira —gutiago ala gehiago, hori bai— dudazko, bitxi, maingu aire batekin. Bizkitartean, arrazoi osoz ari da Villasante, puntu hori komentatuz, dioelarik: «los ejemplos que él

(Michelena) cita son normales y corrientes en los vascos-hablantes». Zer gisaz hori? Villasantek molde horretako erranak entzun dizkien euskalduneri, hotz-hotzean, beste deusik gabe, aurkezten balizkie Michelena adibideak, guti lirerateke besterik gabe onar litzaketanak; askok, beren mintzaketa uko eginez, holakorik inola ere erran ez dezaketela zin egin lezakete berdin⁶. Ez egiazki ezinean daudelakotz, bai, ordean, hizkuntzak oztopoak ematen dituelakotz, haien gaintzeko solas-ingurumenak, beste gauza batzuren artean, inportantzia handia duelarik.

2. De Rijk-en hizkera zabalak ez du euskaldunen erlatibogintzari buruzko arimoldea partez baizik argitzen.

Zabalegi dira haren mugak, zeren, «hizkera zabala» dutelako jendeek erlatibakuntza atzizki bakuneko kasu guztietan berdin egin dezaketela erakustera ematen baitu. Hori, ordean, ez da hala. Daukat ez dela euskaldunik absolutiboa eta ergatiboa (ISerl. sujetao edo objektoa) alde batetik, eta beste beste kasuak (funtzioak) bestetik, berdin erlatibatzen dituenik. Ipar aldean bederen datiboarekin ere agertzen dira oztopoak.

Hertsiegi ere dira, zeren de Rijk-ek ororentzat guztiz erlatibagaitz-tzat dauzkan kasuetan (soziatiboan adibidez), testu-inguru araberakoetan oztopoak gaintzi baitaitezke.

Hizkuntzak muga ezin hautsikorik ez du ematen. Ez da hizkera hertsirik, ez zabalik, baina hiztun bezainbat hizkera. Oztopoak ororentzat, aipatu bi horietaz beste kasu guztietan agertzen dira, ez, ordean, denentzat eta beti molde berean.

Hemen bi puntu garrantzi handikoak badira:

- onesgarritasuna (akzeptabilitatea) eta gramatikaltasuna berezi behar dira;
- aztergai diren esaldiak ez dira testu-inguru egoki batetarik kanpo soilik ikusi behar.

Solas ingurumen horren inportantziaren ikusteko, Etxaideren «Joanak joan» liburutik atera adibide bat hartuko dut:

(18) *Petirik (...) morroi zegoen ugazabari erantzunik erregarriena botatzen zizkion.* (431. orr.)

Bistan den gauza da, norbaiti, hotzean eta beste deusik gabe, aurkezten bazaio holako esaldi bat, nekez ulertzen ahalko duela, edo gaizki, harentzat beste orientabiderik ez duenez geroz, «ugazaba», «morroi zegoen» hura bera izanen baita (bizkitartean biak elkarren aurkako edo direlarik).

6. Aipatu adibideak, Villasanteren *Sintaxis de la oracion compuesta* liburuan (84 eta 85. orr.) aurkitzen dira. Harrigarri da euskaldunek test-etan nola jukatzen dituzten holako itzuliak «hors contexte» emanak direlarik. Orogen buru, buru hauxe erranen nuke: zenbatenaz ere eskolatuago baitira, edo-eta hizkuntzaren «ongiaz» kezkatuago, hanbatenaz gogorkiago epaitzen dituztela.

Etxaideren elaberrian, aldiz, ez da dudarik. Irakurleak badaki Petiri morroi egon zela eta, nolabait errateko, plegu gaiztokoa baitzen gure gizona, anitz haserrabide aurkitzen zuela bere nagusiarekilako harremanetan. Manera horretan, nobelan esaldia ateratzen delarik, interpretabide bat baizik ez du: Pierre répondait de la façon la plus insolente au patron (dont?) (chez lequel?) il était domestique.

Irakurtzean (18) bezalako adibide baten onartzeak ez du inola ere erran nahi, kontexturik gabe, gisa bereko beste bat onesten ahalko dela; adibidez (19):

(19) *morroi nagoen ugazabak esan du.*

Horra zergatik nahiz, hola, idor-idorrean, biziki dudazkoa gerta daitekeen (19), ez zaidan bidezko iruditzen, onesten dutenentzat gramatikala dela erratea eta besteentzat ez.

Michelenak eman adibideekin ber gauza gertatzen da, eta zerrenda luza daiteke: *sortu naizen mintzaira, zinkurinaz nagoen gauza, bizi naizen aitamak*, bitxi kausituko bide ditu irakurle euskaldunak (ez hiruak behardaba, berritz ere diodan: ez da erregelarik); orain kontsidera ditzala ondoko aipamen hauek, lehenbiziko biak Leizarraga eta Jean Etxeparerenganikakoak, azkena, neronek hazpandar bati aditua:

(20) *nolatan bada guc dançuzquigu batbedera iayo ican garen lengoage propiaz minçatzen?* (Apos. A. II, 8)

(21) *Hanbatenaz ardurago non (...) hortzetarik (...) ala burutik erranguratzen ziezitenek ez baitute erdietan deusik, edo bederen zinkurinaz dauden mina ittipienetarik baita.* (Buruxkak, 180. orr.)

(22) *...haur batzuk ez dute bizitzen diren aitamen izena.* (Dibortziatu ondoan, ama berritz ezkondu zen haur batez mintzatzen zen delako hazpandarra)

3. De Rijk-ek aipatu «salbuespenak», ez dira ene gostuko indar berekoak.

a) ISerl. eta ISxer. ber kasuan daudelarik, oztopo guztiak altxatuak dira. Holako esaldiak solas ingurumenik gabe onartzen dira. Gonbara (23) eta (24):

(23) *Lan egiten dudan nagusia izigarri bortitza da.*

(24) *Lan egiten dudan nagusiarentzat langile guztiak alferrak dira.*

Kontuan har dezagun hemen azaltzen dugun egoerak ondoko hizkuntzetan ere baduela bere inportantzia. Funtzioen paralelismoaz mintzatzen da haientzat, eta haurren hizkuntzan nabari da oroz gainerik haren garrantzia. Adibidez hona zer dioen Sheldonek: «Perpau konplexuetan, perpau men-

peratua introdutziten duen izenordeak aitzinekoaren («antecedent» delakoa-
ren) funtzioa ezduelarik, oso zail da haurrentzat haien tratatzea». ⁷

b) Bigarren kasu bereziarentzat, ISxer. eta ISerl.—ren kasua semanti-
koki lotuak direlarik, ez naiz segur de Rijk-ek ematen duen adibideak deus
frogatzen duenik. Hona zein den:

(25) *Nere burua il nai nuen arrazoiaz ez naiz gogoratzen.*

Nago (25) adibidean agertzen den perpaus menperatua sasi erlatiboa ez
ote den, hots *Nere burua il nai nuelako arrazoiaz* bagenu bezala.

Halarik ere, de Rijk-en oharra kontuan hartzekoa dela iruditzen zait,
baina beste gau za batzuren esplikatzeko. Partikulazki, tokizko zirkunstanzia-
letan *leku* manera horretan erabiltzen dela pentsa daiteke. ⁸ Gutiz gehienetan,
erlatibogintzaren sistema ez da aldatzen, eta *leku* elementua ez da inola ere
behar-beharrezkoa. Hona Villasantek Axularrenganik bildu dituen bi adi-
bide:

(26) *Nekbazalerik eta laboraririk baizen ezten herria* (Gero, 249)

(27) *Euskaldunik baizen etzen lekhu* (Gero, 6)

Barandiaranen ipuin bildumetan ordean itzuli batzu aurkitzen dira,
haitetan irudi bailuke *leku* hori kasu ezin ezabatu baten lexikalizatzeko erabilia
dela soil-soilik (pratikan, inesiboa):

(28) *...ta artu ama oian zeôn lekuti...* (El mundo en la ... 3, 95. orr.)

(29) *Urdûn neskamêk, sasi atzên zeôn lekuti...* (idem, 67, orr.)

(30) *... ta dili-dale oyian zaon lekuan* (idem, 123, orr.)

Askorentzat franko arraro dira holako itzuliak, eta ez dakit ipar aldean
erabiltzen diren (poesia landuan piru bereko gauzak, edo bitxiagokoak,
aurkitzen direla gauza ezaguna da). ⁹ Holako erlatiboak sistematikoak balira,
inesiboaren ezabatzeko oztopo ezin gaintutzekoak badirela pentsatu behar
genuke (eta ez da dudarik ezintasun hau tokizko beste kasu guztietara hedatu
behar litzatekeela). Ez dut uste hala den. Are gehiago dena, (30) adibideak,
oztopoak kentzen dituen egoera batetan ere, forma horiek erabiltzen direla
erakusten digu. Gisa guztiez, (28-30) adibideetako erlatibamodua —ezabape-

7. Inglesarentzat ari da hor Sheldon. Gauza bertsua frantses hurrekin ere gertatzen dela
ohartarazi du Cohen-Bacri-k. Ikus *La linguistique*, 1978, 1, 92. orr.

8. Hona zer dioen Villasantek: «Al tratarse de esta clase de oraciones, o sea, circunstancia-
les de lugar, lo más frecuente en Axular es utilizar el sustantivo *lekhu* como antecedente de la
oración adjetiva provista del consabido sufijo relativo *-n*. (...) Por este procedimiento obtiene un
equivalente del castellano *en donde, a donde, etc.*» (idem, 97, orr.)

9. Joanes Etxeberriren lanetan adibidez, usu erdal ereduari segituz: *Guztiac betan nekbaz-
que çure onen azpira ! Aingeruz inguraturic non çaudecen alkira* (Manual debozionezkoa).
Barandiaranen esaldiak anitez onegarriago dira azken hau baino. Beharbada mintzatzean, uste
baino gehiago agertzen dira.

nik gabe eta ISerl. funtzioa matrizaran lexikalizatuz— tokizko zirkunstantziale-tan baizik ez da agertzen (ez denborazkoetan, alta deklinabide bera delarik).

OZTOPOAK.

Ene inkestaren arabera, jada azaldu bezala, ergatiboaz eta absolutiboaz beste kasu guztietan agertzen dira erlatibatzeke zailtasunak, baina ez denetan ber indarrekoak, ez eta hitzun guztiekin molde berean.

datiboarekin.

(31) *Aita goizean mintzatu zaion gizona joan da*

(31) zuzendu didate zenbaitek, aditza iragankorrean erabiliz: *mintzatu duen*. Kontutan har, zuzentzaile horiek guztiek forma iragangaitza onartzen zutela ISerl. sujetao zelarrik, haientzat (32a) eta (32b) bata bestea bezain onegarri izanik orduan (batzuk lehena hobesten zuten):¹⁰

(32a) *Aitari mintzatu zaion gizona joan da.*

(32b) *Aita mintzatu duen gizona joan da*

Bistan dena, oso pizu gutikoak dira, oro har, datiboarekin agertzen diren oztopoak. Aditzarekilako komunztadurak, ISerl.—ren ezabapenaren ondorioak tikitzen dituelako hain segur, baina ez horregatik bakarrik, ohartu ahal izan bainaiz, datiboaren ezabapena berdin onartzen zela (eta egiten egunor-zoko solasaldietan), textu inguru egokietan, aditz komunztadura jokarazi gabe, ipar aldean maiz gertatzen den bezala.

beste atziki bakunekin.

Oztopoak gogorrago izaten dira, eta kontextuak —bai kontextu linguistikoak, bai solas ingurumenak— garrantxi handia du. Salbuespen bakarra denborazko perpausek osatzen dute, haiekin inolako zailtasunik ez baita ageri. Funtsean azken puntu hori bi gisaz esplika daiteke: edo morfologiari so eginez, edo, urrunago joanez, ISerl.—ren sakoneko eginkizunari kasu emanez; bi azalpenak, dena den, ez dira elkarren aurkako; elkar osatzen dutela ere kontsidera daiteke.

10. Hemen «sujetoa» aipatzen dugu, eta ez kasua, pratikoago baitzaigu. Artikuluan, ordean, kasuak, eta kasuek adieraz ditzaketen funtzioak, nahasteka erabili ditugu. Funtzioaren arabera mugatzea zuzenago litzateke benturaz, baina gauzak ez dira beti hoin argi. Adibidez, forma biltzaileetan (Lafitteren «formes enveloppantes» haiek) edo holakoetan, irudi luke kasua bera dugula kontuan hartzekoa. *Semea bila dusten jendeak* (hiltzaile izan gabe), *semea bil zaien jendeak*. Sakonean genitiboa dugula hor, ez da dudarik. Ezin ukatuzkoa de bestalde, gaurko euskaran bederen, ISerl. gramatikalizatzeke joera nabari dela, aditz morfologia laidostatuz batzutan; horrela baizik ez daiteke esplika Michelenari «itzuri» zitzaion hura: *bila nenbiltzanak* (*nenbilenak* baten orde). Galdegaia eta mintzagaia euskaraz, §9 eta (25) nota.

Lehen azterbidearen arabera, kasu lokatibo guztiek sail bat osatzen dutela erran genezake (de Rijk-ek kasuak bederazka aipatzen ditu, lokatiboen sail osoa ere kontuan hartzeko dela pentsatzen dut). Are gehiago dena, denborazko perpausetan, ISxer. (ardurenik ezabaturik egon ere) nolabait kasu ezabatuaren ordezkaria dela pentsa dezakegu (*leku* bezala tokizkoetan, hor *aldi*, *ordu*, *mementu*, edo holako zerbait genuke). Orduan tokizko perpausak eta denborazkoak pareka genitzake, ISxer.—ren elipsisari garrantziarik eman gabe.

Bigarren azterbideari jarraikiz, denborazko perpausen berezitasuna azpimarratzen da. Berezitasun hori, aski garbi agertzen da euskarari, ISxer. interpretapena batere trabatu gabe ezaba baitaiteke. Lehenbiziko azterbideak ez dio esplikabide garbirik ematen gauza horri. Nago ni, denbora, berez, ez ote den elementu tematiko berezia, zenbait hizkuntzalarik proposatu duen bezala. Erlatibapena nolabait ere elementu baten tematizazioari loturik egonik,¹¹ horrela esplika genezake orduan denborazko perpausen berezitasuna.

Perpaus horietaz landa, oztopoak pizuago direla jada erranik gaude, bai eta oztopo horien gaintzeko ingurumenak zer egin handia duela.

Ingurumen linguistikoak lehenik, lexikalak adibidez.

(33a) *Atzo bazkaldu genuen ostatua hetsia da egun*

(33b) *Atzo izan ginen ostatua hetsia da egun*

Testetan, jendeen jarrera ez da beti berdina (33a) eta (33b) aurkezten zaizkielarik (kontexturik gabe). Zenbaitek (33b) onesten du, eta (33a) aldiz ez. Balirudike *bazkaldu* horrela erabiliz erlatibogintza zailagotzen dela (hiztun batek garbiki erran dit *-izkirioz erakutsi nion adibidea-*, irudi zuela ostatua izan zela bezperako jatekoa).¹²

Solas ingurumenak ere oztopoak altxa ditzake. Horrelako zerbait bagenuen Etxaideren esaldiarekin (18), baina orain aipatzera goazena ez da arraz gauza bera. *Abiatzen naizen etxea, igan naizen mendia, ateratzen naizen oihana*, eta horrekako itzuliek anitz euskaldunen hizkuntz sentimendua bortxatzen bezala baldin badute, ez da interpretagaitzak direlakotz edo, hobeki erranez, interpretapen desberdin batzuren artean hautua uzten dutelakotz. Bizkitartean, ez da dudarik solasean agertzen direlarik —eta agertzen dira—, bortxaketa hori ezitzen dela, usuenik desagertzen ere delarik. Irudi luke beraz euskaldun askok horrelako erlatiboak kontextuan baizik ez dituztela onesten,

11. Zenbait hizkuntzatan, tema ongi markaturik agertzen den batzutan, errazago da horren erakustea, hala nola Kuno-k japonésarekin egin baitu. Euskaraz besterik da. Hala ere, beste lan batetan, hipotesis honek euskararen kasuan ere funtsik badukeela erakustera entseiatu naiz (*Les relatives en basque*)

12. Holako gauzek, test horiek zein engainagarri izan daitezkeen erakusten dute.

eta bestela, zail egiten zaiela ISerl.—ri dagokion atzizkiaren ematea. Hona zenbait adibide:

- (34) *Zertako sartzen naiz ni (...) ezin athera naitbekeien oihanean?* Axular, 5.
 (35) *Nekbazalerik baizen ezten herria, dela herririk hobereana.* Axular, 249.
 (36) *Zer fruitu (...) izen zenduten orduan, orain abalkez (...) zaudeten bekhatu betan?* Axular, 251.
 (37) *Hi aicen lekua lur saindua duc* (Leizarraga, Apos. A. IX 17.)
 (38) *Eta ecin phoroga citzaquée ni orain accusatzen nauten gauçac.* (Idem, XIII 13)
 (39) *Hura dagon edo dohan tokia, denik ere, bertze zonbeit baino gutixago jo du lur-ikarak* (J. Hiriart-Urruty, Zezenak Errepublikan, 16. orr.)

GENITIBOAK ERLATIBA DAITEZKEA?

De Rijk-ek problema hori isiltzen duela errana dugu. Pratkan gauzak nola agertzen dira?

Hemen ere debeku ezin gaintzukurik ez dugu aurkitu. Egia da ahal bezainbat ihes egiten zaiela holako erlatiboeri, adibidez, forma biltzaileak erabiliz: *Ama ospitalean duen gizona joana da*, aise onetsia da; itzuli biltzailea baztertzen badugu, ordean, besterik da, kontexturik ez bada partikulazki: *Ama ospitalean den gizona joana da*.

Batzutan, bestaldera gertatzen da; sakoneko objektoa dena genitiboan agertzen delarik, erlatibakuntza berdin egiten da: *Ni naiz çuec galdez çaudetena* dio Leizarragak (Apos. A. X 21) *Hirur guicçon hire galdez diaudec* esaldiari oihartzun emanetz (X 19). Berdintsu ari da Axular (273), honela dioelarik: *Zeren bere konzientzian barrena, ediren baillezakete, eskiribasurik bezala, galdez dauden guztiaren errepuesta*. Molde berean ere bere Manualen Etxeberri: *Iainco handia indaçy esque nagoen hunelaco gauça*¹³. Oso traba guti dela irudi luke gisa horretako perpausetan. Gisa guztiez, *zai(n) egon, beha egon*, eta holakoekin, holako erlatiboak franko aise egiten dira.

Bestela ere, oztopoak, kontextuak laguntzen duelarik, gaintzi daitezke. Lagun baten autoa hartu baldin badut, horren berri dakien solaskideari erran diezaioket delako lagun hartaz hitz eginez: *autoa hartu dudan laguna...* (berritz ere, anitz euskalduni min eginen dio esaldi honen hemen hola irakurtzeak, datiboa beren interpretazionetik baztertzen badute oroz gainetik; bizkitartean egun oroz erabiltzen diren itzuliak dira). Hona zenbait adibide neronek adituak.¹⁴

13. Perpau nominalizatuekin gertatzen dena horren antzekoa da. *Hemen aipatzea luzegi liteken xebetasan batzuen arabera* (Hiriart-Urruty, Mintzaira, Aurpegia, Gizon, 77. orr.); *Jaincoac egorri-cituen orai aipatzenat goacen hauc* (Larreguy)

14. Textu idatzietan zailago da holako adibideen aurkitzea. Ez dakit Etxaideren hartan hala zen, edo beste zerbaiz: morroi zegoen (etxaldeko) ugazabari... [ikus. (18)]

- (40) ...*haurrak udalekuan ditugun aitameri...* (hemen forma implikatiboaren erabiltzeak beste genitiboa aditzean sartetik debekatu bezala du; parapausa horrelako zerbait litzateke: *(beren) haurrak gure udalekuan dituzten aitameri*)
- (41) ... *gakoa eman daukuten bortatik...* (eman diguten gakoa irekitzen duen atetik; hots, nongoa ere, edo zein atetakoa, baita eman diguten gakoa, eta handik...)
- (42) ... *Donibandarrek mariñelak empletzen dituzten herrietara...* (Irratian entzuna, erran nahia hau zelarik: *vers les pays dont sont originaires les marins qu'emploient les (pêcheurs) luziens*; hots euskaraz bestela erranez: nongo edo zein herritakoak baitira Donibandarrek enpletzen dituzten mariñelak, eta hara...).

ATZIZKI BIKOITZEN ERLATIBAPENA

Oso debeku zorrotza ematen du de Rijk-ek gisa horretako erlatiboentzat. Ene inkesten arabera, ordean, gauzak ez dira hain garbi. Egia da, salbu behardaba sozietiboarentzat, oztupoak gogorrigo egiten direla, baina hemen ere kontextuak du azkenean azken hitza. (9-14) adibide saila berritz kontsideratzen badugu, ez dugu, ene irudiko, itzuli agramatikalik aurkituko. Zenbait, diren bezala, ezin konprenituzko ere dira, baina erlatiboak adierazten duen asertzioa solaskideek jada ezagutzen baldin badute, oztupoak altxatzen dira, lehen aipatu kondizione beretan, hau da, hitzunek ISerl.—ri dagokion atzizkia emanez.

Egia erran, sozietiboaz beste kasuetan, ez dut adibiderik aurkitu testu idatzietan, test-etan frogatuen berme izan daitekeenik¹⁵. Hala ere ez dut uste arrazoina den holakoetan ezintasun ezin bortxatuzkoa dugula segurtatzeko.

Sozietiboarekin ez da dudarik. Are gehiago dena, test-etan, *aita mintzatu den gizona* kontexturik gabe proposatzen delarik, askok beren interpretapenetan, ISerl.—ri, sozietiboa, bitartekoa baino errazago eratxekitzen diote.

Beste kasuetan oso oztupo handiak direla aitortu behar da, baina hitzunen konpetentzia edo gaitasun delako hartan posibilitate hori badagoela ez daiteke uka. Gutxi erabiltzen edo baliatzen dela erratea, eta esplikatzea, besterik da. Ez naiz segur, atzizki horien anizkoitasunean datzala osorik horren esplikabidea, zeren sozietiboarekin gertatzen dena azalbide horri kontra jartzen baitzaio.

- (43) *Errak semea... hoinbertze jende, hoinbertze urte preso egona den afera horrek ez dik bertzerik ekartzen abal...*

15. Test horiek, toki eskasez, hemen ez ditut ezarri, *Les relatives en basque* deitu idazlanean aurki daitezke.

(43) adibidea, araberako kontextu batetan, denek onartu dute testetan, kausatiboa erantsirik ISerl.—ri.

Bestalde, nahiz ez dudan ongi egiaztatu ahal izan, Euskal Herrian (bestetan ere beharbada) erabiltzen den frantses herrikoian, holako itzuliak erabiltzen direla iruditzen zait. Eman dezagun: *La maison que j'ai vécu si longtemps..., l'enfant qu'ils étaient tous allés à Lourdes pour prier...*

AZKEN HITZA

Euskarazko erlatibogintza arau hertsia zenbaiten barnean kokarazi nahia franko lanjerosa gerta daiteke. Ez dut uste hemen gauzak bai-ala-ez-kako sistema sinple batek osoki azal ditzakeen.

Bibliografia

- AXULAR. *Gero*. Ed. 1964. Juan Flors. Barcelona.
- J. M. BARANDIARAN. *El mundo en la mente popular vasca*. Vol. 3. Ed. Auñamendi. 1972. San Sebastian.
- J. BOULLE. *Basque Relative Clauses*. University of Vincennes. February 1978. (fotokop).
de RIJK *Studies in basque syntax relative clauses*. (Tesis, 1972, fotokop).
- J. ETCHEBERRI. *Manual devotioenezcoa*. Bordelen. MDCLXIX. Fac. sim. Hordago 1978. Donostia.
- J. HIRIART-URRUTY. *Zezenak errepublikan*. Jakin, 1972. Oinati. *Mintzaira, Aurpegia, Gizon*. Jakin. 1971; Aranzazu.
- S. KUNO. *The structure of the Japanese Language*. MIT Press. 1973.
- J. LEIZARRAGA. *Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu berria*. 1571. Rochellan. Fac. Sim. Hordago. 1979. Donostia.
- L. MICHELENA. *Galdegaia eta mintzagaia euskaraz*, in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*. Deustuko Unibertsitateko argitarazioak. 1981. Bilbo. (57-81 orr.).
- B. OYHARÇABAL. *Les Relatives en basque*. 1981. (fotokop).
- A. SHELDON. *The role of parallel function in the acquisition of relative clause in English*, in, *Journal of Verbal Learning and Verbal behavior*, 1974, 13 (272 - 281. orr.).
- L. VILLASANTE. *Sintaxis de la oracion compuesta*. Ed. franciscana Aranzazu. 1976. Oñate.